

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEARENA (2018).

1. Sarrera.

Plan estrategiko hau onartzen da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan xedatutakoa betez. Agindu horrek diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten administrazio publikoetako organoei eskatzen die aurretiaz plan estrategiko batean zehaztu dezatela zer helburu lortu nahi diren eta zer ondorio sortuko diren hura aplikatzean, zer epe behar den hori lortzeko, zer kostu aurreikusten diren eta zer finantziatio-iturri erabiliko diren, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean. Halaber, artikulua dio printzipio hauen arabera kudeatu behar direla diru-laguntzak: publikotasuna; gardentasuna; lehia; objektibotasuna; berdintasuna eta diskriminaziorik eza; efikazia, administrazio emaileak finkatutako helburuen betetzean, eta efizientzia, baliabide publikoen esleipen eta erabileran.

Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da plan hau. Izan ere, erakundeak, diru-laguntzak emanez, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Plan hau prestatzeko, lortu nahi diren helburuak edo interes publikoak erdiesteko zer bide dauden aztertu da, eta planaren indarraldian (2018ko ekitaldian) horretarako zer baliabide egongo diren egiaztatu da. Era horretan bermatuko dugu efikazia eta efizientzia areagotzea eta jardun-eremu honetan gardentasuna indartzea.

Halaber, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzan plana nola egokitu ere aztertu da, eta erabaki da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren osagarri bat izango balitz bezala egituratzea, VII. Plana onartu bitartean. Izan ere, aurreikusita dago VII. Plana datorren urtearen hasieran onartzea, txostenen bat eta informazio publikorako tramitea egitea baino ez baitu falta.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: emakumeen ahalduntzea sustatzea, elkartegintzaren bidez, baita haien aitorpena ere; erakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, planak onartuz; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten erakunde eta elkarteei lagunduz;

azterlanak eta ikerketa sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ¹ 5. artikuluko k) eta m) hizkietan, 24. artikuluko 3. paragrafoan eta 40. artikuluko 3. paragrafoan xedatua ere betetzen da.

Hala ere, ohartarazi behar da plana programatikoa dela, ez arautzailea, eta, beraz, haren edukiak berez ez duela sortzen ez eskubiderik, ez betebeharririk. Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, diru-laguntzen hainbat ildo abiarazi behar dira, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, besteak beste.

2. Planaren erakunde-esparrua eta iraupena.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, zeinak Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen baitu, plan sektorialen eremua arautzen du 11. artikuluan.

Erakunde-esparruari dagokionez, artikulua dio, arau orokor gisa, plan bat onartuko dela ministerio bakoitzeko (Autonomia Erkidegoan, sail bakoitzeko), zeinetan jasoko baitira diru-laguntzak, bai haren organoenak, bai hari lotutako organismoenak eta gainerako erakunde publikoenak. Hala ere, bada arau orokor horren salbuespenik; izan ere, agindu beraren 2. paragrafoak dio plan estrategiko bereziak onar daitezkeela, baldin eta ministerioaren eremuarenak baino txikiagoak badira eta duten garrantziagatik bereiz garatu beharrekoak badira; horretaz gainera, baterako plan estrategikoak ere egin daitezke, baldin eta ministerio batek baino gehiagok edo ministerio horietakoak ez diren beste organismo batzuek kudeatzen badituzte.

¹ 5. *artikula*: Osorako erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duten eskumena, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokionez, ondoko eginkizunetan gauzatuko da:

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, toki-entitateei, gainerako euskal aginte publikoei eta ekimen pribatuari laguntza tekniko espezializatua ematea.

m) Sustapen-neurriak ezartzea, enpresek eta erakundeek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako planak, programak eta jarduerak garatu ahal izateko.

24.3. *artikula*: Lege honetan aipatzen diren helburuak lortzeko asmoz eraturako elkarteak bultzatuko dituzte EAEko administrazio publikoek.

40.3. *artikula*: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak laguntzak ezarri behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta enpresek arlo horretan adituak diren pertsonak kontratatzeko. Laguntzak eskuratzeko, laguntzak izango duen eraginari buruzko txostena aurkeztu behar du erakunde onuradunak.

Bada, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen espezifikotasuna eta ibilbidea ikusita, plan estrategiko propio bat onartzea komeni da. Horrela, plan honetan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hainbat arlotako diru-laguntzak jaso dira 2018rako. Hauek dira norgehiagoka bidez emango direnak:

- Lankidetzaren Institutuzionalen Arloa. Toki-erakundeei ematen dizkie diru-laguntzak, honako hauek egiteko: berdintasun-diagnostikoak eta -planak, diagnostiko eta plan sektorialak edota estrategikoak, eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-protokoloak, eta haiei dagozkien ebaluazioak.
- Azterketa, Dokumentazio eta Plangintzaren Arloa. Pertsona fisikoei ematen dizkie diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ikertzeko.
- Programak eta Prestakuntza Arloa. Diru-laguntzak ematen dizkie emakumeen elkarteei eta beste antolakunde batzuei, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek eremu guztietan parte har dezaten bultzatzeko, eta enpresei, berdintasunerako planak eta diagnostikoak egin ditzaten, eta, horretaz gainera, sari bat kudeatzen du, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisikoen edo juridikoen (publiko edo pribatu) jarduera publikoki nabarmentzeko eta aitortzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Arloa. Emakumeen elkarteei eta beste antolakunde batzuei ematen dizkie diru-laguntzak, emakumeen aurkako jokoera bortitzak prebenitzeko eta horren gainean sentsibilizatzeko, bai eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiten duten pertsona fisikoei ere.

Iraupenari dagokionez, aipatu erregelamenduaren 11.4 artikulua dio plan estrategikoetan hiru urterako aurreikuspenak jasoko direla, non eta, dagokion sektorearen izaera berezia dela-eta, beste iraupen bat ezartzea komeni ez den. Kasu honetan, inguruabar berezia ikusten da: aipatu plan estrategikorako oinarri den planaren —EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren— indarraldia oso mugatua izango da: VII. Planaren onarpenaren artekoa, zeina 2018. urtearen hasierarako aurreikusita dagoen.

3. Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen ildoak

3.1 Ardatz estrategikoak

Sarreran adierazi bezala, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legeak helburu hauek ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izateko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planak hiru ardatz ezartzen ditu berdintasun-arloan esku hartzeko: balio-aldaketa eta ahalduntzea, gizarte-antolaketa erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeriaren desagertzea.

Ondorioz, ardatz estrategikoak helburu orokor eta esku hartzeko ildo horien barruan kokatzen dira.

3.2 Norgehiagoka araubideko diru-laguntzen ildoak.

Erantsitako tauletan, datorren urtean norgehiagoka-araubidez emango diren diru-laguntzen ildoak ageri dira.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluan, diru-laguntzak emateko prozedurak ezartzen dira. Prozedura arrunta norgehiagoka-araubidearena da: aurkeztutako eskaerak alderatu ondoren ematen dira diru-laguntzak, eskaeren artean lehentasun-ordena ezartzeko, oinarri arautzaileetan eta deialdian finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta, irizpide horiek aplikatuta, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei esleitzeko, deialdian finkatutako mugara iritsi arte, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Salbuespen gisa, baldin eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada, organo eskudunak diru-laguntzetarako jarrita dagoen zenbateko orokor maximoa hainbatu dezake diru-laguntzen onuradunen artean. Sistema horren arabera emango dira 3.2.4 ataleko diru-laguntzak.

3.21

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO. 2018: 360.000 € (47 3223 01 42201 001)
Helburua: 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA.
Ekintza: 1.10. Deialdia egitea udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak egiteko eta/edo planak egin eta ebaluatzeko; eta diru-laguntza horiek ebaluatzea eta ematea.
Adierazleak:
<ul style="list-style-type: none"> - 33. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko edo planak egiteko eta ebaluatzeko udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diruz lagundutako proiektuen kopurua edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloen kopurua. (AURREKONTU-EKITALDIA) - 40. Udalerrri onuradunen kopurua, udalerrri txikietan berdintasun-politikak garatzeari buruz Eudelekin egindako hitzarmenaren esparruan.
BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017)
HELBURU ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIAK (zuzenean gehien inplikatur daudenak soilik)
G1. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA
G1.1 Berdintasunerako plan bat duten udalerrrien kopurua handitzea
Adierazleak:
<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunerako plan bat duten udalen, mankomunitateen, kuadrillen eta partzuergoen kopurua. - Plangintza-prozesuei ekin dieten edo berdintasunerako programak edo planak dituzten udalerrri txikien kopurua.
G2. BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK SORTZEA ETA INDARTZEA
G2.1 Berdintasunerako unitateak edo teknikariak dituzten toki-administrazioen kopurua handitzea
Adierazleak:
<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunerako unitateak edo teknikariak dituzten toki-administrazioen kopurua. - Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean diharduten teknikariak dituzten udalerrrien ehunekoa
G3. BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIO EGITURAK SORTZEA ETA INDARTZEA:
G3.4 Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan koordinazio-egitura espezifikoak dituzten administrazio publikoen kopurua handitzea
Adierazleak:
<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzioa eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-organoko espezifikoa duten administrazioen kopurua

3.2.2

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, AHOLKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO. 2018: 80.000 € (47 3223 01 45200 001)
Helburua: 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.
<p>Ekintza: 4.3. Gizarte-antolakuntza erantzukidea</p> <p>4.3.1. Enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-politikak gara daitezen sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren, laguntza ekonomikoen eta aitorten sozialaren bidez</p> <p>Adierazlea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 13-18, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko enpresei eta erakunde pribatuei emandako diru-laguntzen kopurua.
BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017)
HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA: BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA
<p>3. PROGRAMA. AHALDUNTZE KOLEKTIBOA LAGUNTZEA</p> <p>1. Emakumeen laneratzea, lan-baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoeren aniztasuna kontuan hartuta</p> <p>3.1.8 helburu operatiboa: enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-planen kopurua handitzea</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun-plana duten enpresa edo elkarte pribatuak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lankidetzaren erakunde gisa homologatuta daudenak: kopurua, neurriaren eta sektorearen arabera <p>4. PROGRAMA: AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA BULTZATZEA</p> <p>4.2.2. helburu operatiboa: sektore pribatuko enpresetako erabakitze-esparruetan eta zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea</p> <p>Adierazleak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal enpresetan emakumeek betetako zuzendaritza-postuen ehunekoa, EJSNen eta enpresen tamainaren arabera. - Lehentasunezko zatitza jotzen diren jardueraren sektoreetako zuzendaritza-postuetako emakumeen ehunekoa: hirugarren sektoreko enpresak (batik bat, finantzarioak eta bitartekaritza ekonomikokoak); unibertsitateak eta ikerketa-zentro pribatuak; arte- eta kultura-jarduerak egiten dituzten enpresak; komunikabideak; titulartasun pribatuko museoak; teknologia-enpresak.
HELBURU ESTRATEGIKOA: II. ARDATZA. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA.
<p>6. PROGRAMA. KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA.</p> <p>1. Enpresen kultura eta jardueraren kontziliazio erantzukiderantz aldatzea</p>

3.2.3

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUKO IKERKETA-BEKAK (HIRU). 2018-2019 aldia. 2018: 23.333 €. Konpromiso-kreditua: 2019: 46.666 € (47 3223 01 45301 002)
Helburua: 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBETUNTZA BULTZATZEA.

Ekintza: 1.10. Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntzaren eta ikerketaren arloan genero-ikuspegia sar dadin bultzatzea.

Adierazlea:

- 3 Ikerketa-beken kopurua

BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017).

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA.

G4. HELBURUA. ESTADISTIKA ETA AZTERLANETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA.

Ekintza: Berdintasunaren arloan ikerketa sustatzeko beka emateko 2018ko deialdia egitea eta beka esleitzea.

Adierazleak:

- Aurkeztutako eskabide kopurua
- Emandako beka kopurua
- Zuzeneko onuradun izan diren emakumeen eta gizonen %

3.24

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK. 2018-2019 aldia. 2018: 282.000 €. **Konpromiso-kreditua: 2019:** 94.000 € (47 3223 01 45499 002)

Helburua: 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.

Ekintza: 4.2.1. Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoaren bidez, elkartegintza sustatzeko.

Adierazleak:

- 100-140 Emakume-elkarteei emandako diru-laguntzen kopurua.
- 150 Emakume-elkarteei diruz lagundutako proiektuen kopurua.
- 75 Diru-laguntza lortu duten emakume-elkarteen %, elkarteen gidaliburuan erregistratuta dauden emakume-elkarte guztiekiko.

BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017).

HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA: BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA.

4. PROGRAMA. AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA BULTZATZEA.

1. Emakumeen elkartegintza sustatzea eta emakumeak haietan parte hartzera bultzatzea.

4.1.1. helburu operatiboa: berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteen kopurua eta elkarreetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea

Adierazleak:

- Berdintasuna sustatzen duten emakumeen elkarte kopurua EAEn, elkarte motaren arabera.
- Berdintasuna sustatzen duten emakume-elkarteetako kide diren emakumezkoen kopurua eta ehuneko EAEn.

4.1.2 helburu operatiboa: elkarte-mugimenduetan, alderdi politikoetan, sindikatuetan eta enpresa-elkarreetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.

Adierazleak:

- Edozer motatako elkarte-mugimenduetan parte hartzen duten emakumeen ehuneko.
- Erakunde politikoetan parte hartzen duten pertsonen ehuneko EAEn, sexuaren eta partaidetza motaren arabera (diru-laguntza, jardueraren bat egitea edo nonbait afiliatuta egotea).
- Sindikatuetan parte hartzen duten pertsonen ehuneko EAEn, sexuaren eta partaidetza motaren arabera (diru-laguntza, jardueraren bat egitea edo nonbait afiliatuta egotea).

- Enpresa-erakundeetan edo erakunde profesionaletan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa EAEn, sexuaren eta partaidetza motaren arabera (diru-laguntza, jardueraren bat egitea edo nonbait afiliatuta egotea).

4.1.4 helburu operatiboa: Egitarauetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea.

Adierazleak:

- Helburuen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea duten EAEko elkarten ehunekoa, elkarte feministak eta emakumearen sustapenerako elkarteak salbu.
- Azken urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak egin dituzten EAEko elkarten ehunekoa, elkarte feministak eta emakumearen sustapenerako elkarteak salbu.

3.2.5

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:

GENERO-INDARKERIA PREBENITZEAREN ETA HARI BURUZ SENTSIBILIZATZEAREN ARLOKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK. 2018: 180.000 €. Konpromiso-kreditua:
2019: 60.000 € (47 3223 01 45499 009)

Helburua: 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.

Ekintza: 4.4. Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteari dagokionez. **4.4.3** Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen lagun dezan sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei diru-laguntzak emateko deialdien bidez.

Adierazlea:

40 Diru-laguntza lortu duten emakume-elkarten %, elkarten gidaliburuan erregistratuta dauden emakume-elkarte guztiekiko.

BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017).

HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

7. programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa.

7.1 Indarkeriarik gabeko portaera-ereduak gara daitezen bultzatzea.

7.1.2 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna oinarritzko elementu gisa eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa erakuts daitezen.

7.1.3 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hari aurre hatzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.

7.1.4. Emakumeen aurkako indarkeria motei eta haiek desberdintasunarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea; batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa (mikroindarkeriak).

7.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta ikerketa hobetzea.

7.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.

7.2.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea.

7.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan hark duen eraginei buruzko hausnarketa bultzatzea.

8. programa: Detekzioa eta arreta.

8.1. Portaera bortitzak garaiz detektatzea eta haiei buruzko informazioa areagotzea.

8.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloei jarraikiz jardungo duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman).

8.1.3 Edozer motatako indarkeria jasan duten eta zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen duten emakumeak gehitzea, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenei arreta berezia jarri, haientzako informazioa areagotuz eta eskuragarriago jarri.

3.2.6

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO LAGUNTZAK. 2018: 19.683 €. Konpromiso-kreditua: 2019: 6.561 € (47 3223 01 45301 004)
<p>Helburua: 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERTINTASUNA LANTZEKO.</p> <p>Ekintza: 4.4. Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteari dagokionez. 4.4.3. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen lagun dezan sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei diru-laguntzak emateko deialdien bidez. Horretaz gainera, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei egindako kaltearen erreparazioa sustatzea.</p> <p>Adierazlea: Emakumeen aurkako indarkerian esku-hartzeko masterreko ikasleei emandako laguntzen kopurua.</p>
BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2018-2021).
HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA.
<p>7. programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa:</p> <p>7.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa eta ikerketa hobetzea.</p> <p>7.2.2. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen kontrako edozer motako indarkeriak hobeto ezagutzeko aukera ematen duten ikerketen eta azterlanen kopurua. - Edozer motako indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko prozesuetan eragiten duten faktoreei buruz egindako ikerketen eta azterlanen kopurua.

3.2.7

2018KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2018 aldia. 14.400 €. (47 3223 01 45301 001)
<p>Helburua: 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERTINTASUNA LANTZEKO.</p> <p>4.1. Balioak aldatzeari dagokionez.</p> <p>Ekintza: 4.1.4. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak eta beste ekintza batzuk egitea eta/edo horietan laguntzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1 Emakunde Sarirako 2018ko deialdia. - 1 Sentsibilizazio-ekintzen kopurua (Berdintasunaren aldeko 2017ko Emakunde Saria ematea).
BERDINTASUNERAKO VI. PLANA (2014-2017).
HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
<p>2. programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea.</p> <p>2.1. EMAKUMEEN AUTOESTIMUA KONPONTZEN ETA GARATZEN LAGUNTZEA</p> <p>2.1.2 Emakumeen eta beren ekarpenen aitorten soziala areagotzea.</p> <p>Adierazleak:</p>

- Emakume-izena duten espazio publikoak (kaleak, plazak eta eraikinak): kopurua, udalerraren arabera bereizita.
- Emakume-izena duten sari edo lehiaketen kopurua.
- Emakumeen egitate zehatzak hedatzea, ezagutzea eta aitortzea helburu duten sari eta lehiaketen kopurua.
- Emakumeen kultura-, arte- edo zientzia-ekoizpena hedatzeko jardueren kopurua.
- Jarduera akademikoetan, trebakuntza-jardueretan eta dibulgazio-jardueretan parte hartzen duten emakumeen kopurua.
- EAEko museotan eta erakusketa aretoetan programatutako emakume artisten erakusketen ehunekoa.
- EAEko museoek erositako emakumeen lanen ehunekoa.